

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Erakundea: KIROLOGI FUNDAZIOA
Programa: 010 - Kirologi Fundazioa

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Kirologi Fundazioa, 1998an eratua, irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta, azken helburu gisa, Gipuzkoako kirol ez-profesionala sustatzea eta garatzea du helburu, errendimenduko kirolari lehentasuna emanez, batez ere babes publiko eta pribatuak lortuz.

Kirologi Fundazioak Gipuzkoako taldeek eta kirolariek kirol-errendimendu handian parte har dezaten sustatzen du, eta, horretarako, haien finantzazioa sostengatzen du, Gipuzkoaren kirol-posizionamendua eta irudia hobetzen lagunduko duen lurraldearekiko berdintasunezko errendimenduko kirol-eredu integratzailea, jasangarria, kohesionatua eta gizarte- eta ekonomia-arduraduna egituratzeko.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoan 1.145 klub daude inskribatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan (Iturria: Eusko Jaurlaritza) eta 81.987 lizentzia federatu inguru (Iturria: KIROLDATA); horrek esan nahi du kirol-sare oso garrantzitsua dagoela 727.121 biztanle baino ez dituen lurralde batean (Iturria: EIN). Parte-hartze kolektiboko modalitateetan (16), Gipuzkoak, batez beste, 32 talde ditu (Kirologi iturria), eta horiek profesionalak ez diren bi dibisio gorenetan lehiatzen dira estatu mailan, bai emakumezkoetan (15), gizonezkoetan (13), mistoetan (3) eta egokitueta (1). Horietako bik edo hiruk Europako lehiaketetan parte hartzen dute urtero. Banaka parte hartzeko modalitateetan (33) parte-hartze handia du (143 kirolari (% 52 maskulinoak eta % 48 femeninoak) - Kirologi iturria) errendimendu handian, eta emaitza bikainak lortu ditu, bai estatuan (67 kirolari), bai nazioartean (76 kirolari). Egoera horrek ez du ia aldaketarik izan 2005. urteaz geroztik, eta, termino absolutuetan, Gipuzkoa estatuko lehen hamar lurraldeen artean dago, eta biztanleriari dagokionez, berriz, lehen hiruren artean. 2022an COVID19ren pandemiaren jarraipena edo ondorioen inguruko ezjakintasunaren aurrean, Gipuzkoako errendimendu handiko kirolean esku-hartze bat egin eta garatu behar da, gure lurraldeko talde eta kirolarien maila mantentzeko eta haien presentzia eta jarduera errazteko kirol-egiturei eusteko.

Beharraren deskribapen xehatua:

Finantzaketa publiko-pribatua.
Kirolariei eta klubei laguntza eta aholkularitza ematea.
Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuekiko koordinazioa

Nori zuzendua:

Gipuzkoako errendimendu handiko taldeak eta kirolariak.
Fundazioaren erakunde babesle eta enpresa laguntzaileak
Fundazioaren babesle eta laguntzaile izan daitezkeen erakunde eta enpresak

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Baliabide ekonomikoak, giza baliabideak, laguntza teknikoak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Hitzarmenak egitea fundazioaren jarduerak finantzatzen dituzten erakunde publiko eta pribatuekin. Diru-laguntzak eta laguntzak emateko irizpideak eta oinarriak prestatzea. Talde onuradunekin lankidetzat-hitzarmenak egitea. Talentuaren ibilbideak sortzeko planak. Kirolari babesa emateak dakartzan balioen eta onuren publizitate- eta sozializazio-kanpainak. Kirol-talentuaren arretarako eta garapenerako programak. Kirolerako eta enpresarako espazio komun bat sortzeko programak.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Lehiaketa-kategoria gorenetan ekipoak mantentzeko diru-laguntzak. Gipuzkoako kirolarientzako laguntzak. Talentuarentzako ibilbideak sortzeko finantzaketa. Babesleak eta laguntzaileak erakartzea eta fidelizatzea. Kirol- eta prestakuntza-jarduerak sustatzea eta antolatzea.

Errendimendu jasagarria, kohesionatua eta lurraldearekiko gizarte- eta ekonomia-arduraduna duen kirol-eredua. Gipuzkoaren posizionamendua eta irudia goi-mailako kirol-errendimenduan. Berdintasunezko kirol-eredua generoari eta aniztasun funtzionalari dagokienez.

Programaren arau esparrua:

Kirolgi Fundazioaren estatutuak

14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolari eta haren garapenei buruzkoa.

9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioena eta haren garapenena.

115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.

Agindua, 2018ko apirilaren 12koa, Gobernantza Publiko eta autogobernuko sailburuarena, onura publikoko fundazioen eta elkarten urteko kontuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen eta Onura Publikoko Elkarten Babeslaritzaren aurrean aurkezteko formularioak formatu digitalean edo telematikoan zehaztu eta onartzen dituenak.

3/2004 Foru araua, apirilaren 7koa, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoa.

Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako Kontuen Plan Orokorra

Administrazio eta ekonomia/finantza legeria orokorra eta komuna.

Sektore publikoko fundazioei aplikatu beharreko araudi osagarria

2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA

Urteko helburua: Gipuzkoako kirol egitura eta jarduera fisikoa bera indartzea, arreta berezia ipiniz osasunerako estrategiei, balioetan hezteari, berdintasunari eta talentua garatzeari.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gipuzkoako zenbat taldek hartzen dute parte estatu mailako 2 kirol kategoria gorenetan	Kopurua	>=	33,00	32,00	32,00	34,00
Emakumeen kirolak jasotzen duen finantzaketa, kopuru osoarekiko	Ehunekoa	>=	50,94	50,00	50,00	50,00
Jarduera fisikoa erregularitasunez egiten ez duten pertsona helduak.	Ehunekoa	=	22,60	20,50	18,00	28,00
Emakumezkoak			24,50	22,50	18,50	30,00
Gizonezkoak			20,40	18,40	17,40	26,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Kirol talentuaren prestakuntza laguntzea, ziklo olinpikoari arreta berezia jarrita, eta errendimendu handiko kirolariei laguntza emateko zentro espezializatu bat antolatuta.



% 93,28



% 2,21



% 0,18



% 1,14



% 3,19

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	3.948.656,00		30.000,00	2022/01/01	2022/12/31	
1.1 Ekintza Gipuzkoako errendimenduko kirola finantzatzeko baliabide pribatuak kudeatzea eta erakartzea.	17.908,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.2 Ekintza Bultzatzea Kirologi marka Gipuzkoari lotuta egon dadin komunikabide sozialetan eta publizitate euskarrietan.	283.538,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.3 Ekintza Bermatzea finantzaketa esparru egonkor bat goi mailako taldeentzat, epe erdiko beren proiektuak planifika ditzaten.	2.469.558,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.4 Ekintza Kirol-modalitateen lurralde- egituraketako eta talentua garatzeko ibilbideak sortzeko proiektuak egitea	17.908,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.5 Ekintza Diru laguntzak ematea Gipuzkoan prestatutako goi errendimenduko kirolariei.	886.326,00			2022/01/01	2022/10/31	
1.6 Ekintza Elkarlanean aritzea Gipuzkoako errendimenduko kirolarien prestatuntza akademiko eta bestelako zerbitzuetan.	30.000,00		30.000,00	2022/01/01	2022/12/31	
1.7 Ekintza Aldeztea goi mailako kirolariak Gipuzkoako klubetara itzultzea edo bertan gelditzea.	99.158,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.8 Ekintza Kudeaketa arruntetik eratorritako gastuak optimizatzea.	45.102,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.9 Ekintza Kirolean balioak bultzatzeko erreferentziazko jarduerak sustatzea eta/edo antolatzea.	90.204,00			2022/01/01	2022/12/31	
1.10 Ekintza Emakumeek eta neskek osatutako kirol taldeen aitorpen soziala bultzatzea	8.954,00			2022/01/01	2022/12/31	

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

2005ean hausnarketa estrategiko bat egin zen, eta ondorioetan hainbat faktore zehaztu ziren, zeharka garatu beharrekoak jardun-ildo guztietan eta errendimendu handiko kirolaren esparruan. Faktore estrategiko horietako bat "emakumeen Kirola" izan zen. 15 urte hauetako lorpen nagusia Kirologi Fundazioaren diru-laguntzen onuradunen kopurua eta emandako diruzko zenbatekoa orekatzea izan da. Gaur egun, ia % 50eko parekotasuna dago bi kontzeptuetan, fundazioaren bi jarduera-ildo nagusietan: talde eta kirolarientzako laguntzetan, hain zuzen ere. Laguntza horietara aurrekontuaren % 85 eta % 90 artean bideratzen du. Banaka parte hartzeko modalitateei dagokienez, kirol-merezimenduak zabaldu ziren emakumeen kirolean, diru-laguntzak eskuratzeko aukera errazteko. Bi jarduera horiek eta aplikatutako pizgarri ekonomikoek lagundu dute errendimendu handiko Gipuzkoako emakumeen kirolak nabarmen gora egiten Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan. Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak genero-berdintasunari buruz egiten dituen ekintzetan parte hartzeko eskatzen zaie talde eta kirolariei, dagozkien hitzarmenen bidez.

Kuantifikazioa: 186.216,30 (% 4,72)

Ordainketa kredituak: 186.216,30 (% 4,72)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	(% 80,00)	Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorruta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.	
Ea.HO.8.2 GFaren genero zeharkakotasunaren strategiaren bidez, emakumeen ahalduntzea sustatzea.	(% 20,00)	Ea.8.2.3. GGKE eta lurraldeko emakumeen arteko aliantzak sortzea, ezagutzak eta esperientziak elkar trukatuta.	

HIZKUNTZA BERDINTASUNEN PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Kirolgi Fundazioak bi hizkuntza ofizialak erabiltzen ditu kanpo- eta barne-harreman guztietan, bai eta egiten eta argitaratzen dituen kanpo- eta barne-agirietan ere. Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidalerro eta helburu orokor eta espezifikoak eusten zaie.

Kirol arloko akordioen esparruan, talde eta kirolariei eskatzen zaie, hitzarmen egokien bidez, ez bakarrik horien erabilera, baita Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen normalizazioaren inguruan egiten dituen ekintzetan inplikatzeko ere. 2020an, klub guztiek parte hartu dute Euskaraldia ekimenean, foru-erakundeko dagokion departamentuarekin lankidetzan, baita kirolari ugari ere.

Klub eta kirolari guztiek eragile publiko zein pribatuek antolatutako ekimenetan parte hartu dute.

Kuantifikazioa:	449.005,50	(% 11,37)
Ordainketa kredituak:	449.005,50	(% 11,37)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

Kategoria	Kategoria %	Nola
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 11,11)	1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da. Ekitaldien antolamendu fasean hizkuntza trataera zehatza definituko da aldibereko interpretazioaren beharrak barne.
5.1. Administrazioa	(% 44,44)	5.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak
		5.1.2. Administrazioekiko ahozko harremanak
		Diru laguntza eta hitzarmenak arautzen dituzten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
		Diru laguntza arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.
5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	(% 44,44)	5.3.1. Beste entitateekiko idatzizko harremanak
		5.3.2. Beste entitateekiko ahozko harremanak
		Proiektuaren komunikazio atalean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.
		Hizkuntza irizpideak finkatuko dira proiektuaren kanpo kudeaketan.

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Jarduera fisikoaren eta kirolaren sustapenak zeharkako osagai handia du, GJHetan duen inpaktuan islatzen dena. Horrela, 2022ko ekitaldiari begira, helburu hauen irismena aurreikusten da: 1. Pobreziaren amaiera, 3. Osasuna eta ongizatea, 4. Kalitatezko hezkuntza, 5. Genero-berdintasuna, 10. Desberdintasunak murriztea, 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, 16. Justizia bakea eta erakunde erantzuleak eta 17. Helburuak lortzeko aliantzak.

Kuantifikazioa: 3.948.656,00 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 3-OSASUNA ETA ONGIZATEA Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.		3.683.276,80	
	Helbubura 3.X1 - Ingurune komunitarioan osasuna sustatzea, jarduera fisikoa sustatuz.	3.683.276,80	
Jarduketa ildoak			
Kirol talentuaren prestakuntza laguntzea, ziklo olinpikoari arreta berezia jarrita, eta errendimendu handiko kirolariei laguntza emateko zentro espezializatu bat antolatuta.		3.683.276,80	
 4-KALITATEZKO HEZKUNTZA Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.		87.163,20	
	Helbubura 4.7 - Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza aberatsak eta praktikoak eskuratzen dituztela bermatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako hezkuntzaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzearen, mundu mailako hirigintzaren eta aniztasun kulturalaren eta kulturaren garapenerako hezkuntzaren bitartez.	87.163,20	
Jarduketa ildoak			
Kirol talentuaren prestakuntza laguntzea, ziklo olinpikoari arreta berezia jarrita, eta errendimendu handiko kirolariei laguntza emateko zentro espezializatu bat antolatuta.		87.163,20	
 5-GENERO BERDINTASUNA Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.		7.163,20	
	Helbubura 5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan.	7.163,20	
Jarduketa ildoak			
Kirol talentuaren prestakuntza laguntzea, ziklo olinpikoari arreta berezia jarrita, eta errendimendu handiko kirolariei laguntza emateko zentro espezializatu bat antolatuta.		7.163,20	

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.	45.102,00	
	Helbubura 16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	45.102,00	
Jarduketa ildoak			
Kirol talentuaren prestakuntza laguntzea, ziklo olinpikoari arreta berezia jarrita, eta errendimendu handiko kirolariei laguntza emateko zentro espezializatu bat antolatuta.		45.102,00	
	17-HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	125.950,80	
	Helbubura 17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	125.950,80	
Jarduketa ildoak			
Kirol talentuaren prestakuntza laguntzea, ziklo olinpikoari arreta berezia jarrita, eta errendimendu handiko kirolariei laguntza emateko zentro espezializatu bat antolatuta.		125.950,80	
Guztira		3.948.656,00	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2021	2022	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2023	2024	2025	2026 eta hurrengoak/ 2026 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL							
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	368.106,00	346.216,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	2.819.440,00	3.602.440,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.187.546,00	3.948.656,00					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	3.187.546,00	3.948.656,00					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL						
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	346.216,00				346.216,00	
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	3.602.440,00				3.602.440,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.948.656,00				3.948.656,00	
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	3.948.656,00				3.948.656,00	

Sarreraren kapituluak / Capítulos de ingresos	2021	2022	Gastuari lotutakoak / Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS			
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS			
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	3.187.546,00	3.948.656,00	30.000,00
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.187.546,00	3.948.656,00	30.000,00
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	3.187.546,00	3.948.656,00	30.000,00